

E.E.- 2026-00257

## ALKATETZA DEKRETUA

OINARRIA: 2026ko maiatzaren 29an eta sarrera erregistro nagusiko E202602160 zenbakiagaz, Zutunik! Larrabetzuko Talde Feminista Elkarteak Larrabetzuko Udaleko 2026ko Aurrekontu Orokorrean modu nominatiboan zehaztutako diru-laguntzaren eskaria egin zuen. Diru-laguntzaren zenbatekoa 1.000,00 eurokoa da.

OINARRIA: 2026ko urtarrilaren 27an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2026 ekitaldi ekonomikorako Udal aurrekontuaren behin betiko onarpena argitaratu zen eta horretan Zutunik! Larrabetzuko Talde Feminista Elkarteak diru-laguntza nominatiboa agertzen da 230.48002 aurrekontu partidan. Partida horretan 1.000,00 euroko kreditua dago.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen 22 eta 28. artikuluetan, Lege hori garatzen duen araudia onartu zuen 887/2006 Errege Dekretuaren 65. artikuluan eta Toki Araubideko Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 artikuluan zehaztutakoaren arabera, honako hau EBATZI DOT:

LEHENENGOA.- Zutunik! Larrabetzuko Talde Feminista Elkarteari 230.48002 aurrekontu partidaren pentsuan 1.000,00 euroko diru-laguntza ematea, ebazpen honetan zehaztutakoari jarraituz:

- Diru-laguntzaren objektua: Feminismoa landu eta gizartean zabaldu. Emakumeen kontrako bortizkeria salatu. Gizarte parekidea lortzeko lan egin.
- Aurrekontu kreditua: 1.000,00 euro, udal aurrekontuko 230.48002 aurrekontu partidaren pentsuetan.
- Xede berdinarekin lortzen diren diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edota baliabideekin bateragarria izango da, horiek bestelako Administrazio Publikoetatik datozela edo beste erakunde publiko edo pribatutik datozela kontuan izan gabe. Justifikazioarekin batera bestelako diru-sarrerak lortu izanaren inguruko akreditazioa egin beharko da.
- Diru-laguntza ebazpen hau ematearekin %70a ordainduko da eta geratzen den %30a justifikazioa egin eta gero ordainduko da.
- Diru-laguntza justifikatzeko epea 2026ko zezeilaren 26an bukatu egiten da. Justifikazioa lege aplikagarriak zehaztutako moduan egingo da.

BIGARRENA.- Ebazpen honen berri udal diru-zaintzari eman diru-laguntzaren ordainketa egin dezan.

HIRUGARRENA.- Dekretu hau interesdunari jakinarazoko jako.

LAUGARRENA.- Udalbatzako Osoko Bilkureak egingo dauan hurrengo bileran Dekretu honen barri emongo da.

*Ebazpen honek **administrazio-bidea amaitzen du**. Horren aurka, aukerako izaeraz, **berraztertze-errekurtsoa** aurkez daiteke ebazpena eman duen **Alkatearen aurrean, hilabeteko epean**, ebazpenaren **jakinarazpena** egin eta **hurrengo egunetik** aurrera zenbatuta, **Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan** xedatutakoarekin bat etorritz. Bestela, **administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** aurkez daiteke **Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena** egin eta **hurrengo egunetik** aurrera zenbatuta, **Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan** xedatutakoarekin bat etorritz.*

*Hori guztia, interesdunak egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkezteko duen eskubideari kalterik egin gabe.*